

Euskal antzerki eskolen zentsua

Ikerketaren lehen ondorioak

AURKIBIDEA

1. IKERKETAREN HELBURUA	3
2. IKERKETAREN LAGINA: “EUSKAL ANTZERKI ESKOLAK”?	4
3. IKERKETA-PROZESUA	5
4. ONDORIOAK.....	6
5. BEHAR OROKORRAK	7
6. IKERKETAREN ONDORENGO ONDORIO OROKORRAK	8

1. IKERKETAREN HELBURUA

Ikerketa honen helburua euskal antzerki eskolen (eta antzerki formakuntza eskaintzen duen beste edozein espazioren) inguruko datu base edo zentsu bat osatzea izan da, haien inguruko informazio orokorra bilduz, arlo horretan euskal lurraldean zer egotea dagoen ikusteko eta antzerkigintzako eragileen artean sarea sortzeko lehen pausua izango delakoan.

2. IKERKETAREN LAGINA: “EUSKAL ANTZERKI ESKOLAK”?

Hasiera batean ikerketa objektutzat “euskal antzerki eskolak” hartu genituen, hau da, euskal eskola formalak eta ez horren formalak, baina segituan konturatu ginen “eskola ez formal” horien barruan eragile eta proiektu anitzak daudela. Aniztasun horren parte da hizkuntza, izan ere, euskara hutsean aritzen diren proiektuak bakarrik barne-bilduz gero, beste asko utziko genituzkeen kanpoan... eta guzti horiek kontuan hartu nahi izan ditugu: laginaren zehaztasuna zailtzen duen arren (eta horrekin batera ikerketa bera), errealitatearen ispilua da eta aberasgarriagoa egiten zaigu. Horregatik, ohiko eskolez gain, “euskal antzerki formakuntza eskaintzen duen edozein espazio” kontuan hartu dugu, baita elebidunak direnak ere. Hartara, zentsu honetan parte hartu dute:

Goi mailako antzerki-eskolek (TAE, Dantzerti...), beste formakuntza mota batzuk eskaintzen dituzten eskolek, administrazioak (“Donostia Kultura”k), Unibertsitateak (“Unea” Unibertsitateko Eszena Artea), ikastaroak ematen dituzten antzerki konpainiek, antzerki talde amateurrek, kultur elkarteek, sorkuntza espazioek (ikastaroak eta egonaldi artistikoak antolatzen dituztenak, esaterako Azpeitiko Dinamoia edo Gasteizko Sala Baratza), autonomo gisa ari diren partikularrek, eta abar.

Lurraldeari dagokionean, Euskal Herriko zazpi probintzietara zabaldu dugu ikerketa, eta ia probintzia guztietatik jaso ditugu datuak. Argi dugu ikerketa hau ez dela inolaz ere zehatza, ez eta mapa konpletoaren adierazgarri, gure baliabideak mugatuak baitira; baina abiapuntu bat izan daiteke beste ikerketa batzuk egiteko: hasieran aipatu bezala, elkarren berri izan eta sarea sortzeko lehen urrats bat.

3. IKERKETA-PROZESUA

Zentsuan parte har dezaketen eragileak identifikatzeko (jadanik ezagutzen genituen erreferentziaz gain) ohar bat zabaldu genuen EHAZE eta EAB (Euskal Aktoreen Batasuna)-ko kideen artean, baita sare sozialetan ere, eta sarean nabigatu genuen. EKE (Euskal Kultur Erakundea)-k, Iparraldeko eragileen datu eguneratuak ahalbidetu zizkigun eta Eusko Jaurlaritzako “Kultur-klik” webguneko antzerki eskolen direktorioa bereziki baliagarria egin zaigu, baita antzerki-jaialdien direktorioa ere, zeina, formakuntza zuzena ez den arren, interesgarria egin zaigu eta informazio gehigarri moduan bildu dugu ikerketa honetara.


Eragileekin telefonoz eta korreo elektronikoz komunikatu gara nagusiki eta haien inguruko ezaugarri nagusiak Google-ko galdetegi baten bidez jaso ditugu. Hauexek dira galderak:

1. Zein da euskarazko antzerki hezkuntzaren alorrean egiten duzuen eskaintza? (ikas-taro mota, ordu kopurua..)
2. Zein publikori zuzenduta dago? (adina, formazio maila edo esperientzia...)
3. Zenbat urteko ibilbidea duzue?
4. Zenbat irakasle eta langile (administratiboak, etab.) zarete?
5. Zein da zuen finantzamendu nagusia?
 - Diru-laguntza publikorik jasotzen al duzue?
 - Aurreko galdera baiezkoa bada, zer erakundek lagundu zaituzte?
6. Zer espazio erabiltzen duzue lanerako?
7. Zein da zuen difusio eta komunikazio estrategia? Edo nola dute ikasleek zuen berri?
8. Lan-baldintza eta baliabide aldetik zerbaiten beharra sentitzen al duzue?
9. Zer zailtasun eta erronkari egin behar diezue aurre?
10. Zuen egoeraren inguruan bestelako komentarioak: Guztira 38 eragileren erantzunak jaso ditugu, eta ikerketa amaitutzat eman dugun arren, oraindik posible da erantzun gehiago jasotzea.

4. ONDORIOAK


Hizkuntza

38 eragileetatik 26-k euskara hutsean egiten du lan, hau da, erdiak baino gehiagok. 16 elebidunak dira.



Diru-laguntza publikoak

38 eragileetatik 27-k diru laguntza publikoak jasotzen dituzte. Jasotzen ez dituzten 8 eragiletik 2-k eskatu izan dituzte.



5. BEHAR OROKORRAK

Ezegonkortasuna eta diru-laguntzak

Eragile gehienek diru-laguntzak jasotzen dituzte eta haien menpeko daudela adierazten dute, zeina arazo bezala ulertzen duten, administrazioak (tokian-tokiko udalak, diputazioak edo Eusko Jaurlaritzak) ez baitu antzerkia behar bezala baloratzen, eta hortaz, ez ditu baldintza duinak eskaintzen. Zailtasun gehienak diru-faltagatik izaten direla azpimarratzen da. Gainera, gobernu-aldaketekin baldintzak ere aldatu egiten dira eta ziurgabetasuna da nagusi. Urtero diru-laguntzak eskatzen ibili beharra ere oso nekeza egiten zaie.

Sektoreko hitzarmena

Sektorean hitzarmen baten beharra nabari da.

Espazio publikoak

Eragile ugari lan egiteko areto edo espazio publikoen beharra dute, baina askotan ez dute horretarako aukerarik, nahiz eta herriko antzokiak hutsik egon. Oztopo honek ere administrazioarekin du lotura.

Antzerki-konpainia erresidente

Ibilbide luzeko antzerki-konpainiek konpainia erresidente izateko beharra sentitzen dute, eta zailtasun ugari aurkitzen dituzte euren herriko udalarekin, ez baita Euskal Herrian horretarako ohiturarik.

Covid-19

Pandemiaren harira, eskola gehienetan ikasleak murriztu dira eta hainbat kasutan ezin izan dira taldeak sortu. Ez dute laguntzarik jaso egoera honi aurre egin eta lanean jarraitu ahal izateko.

6. IKERKETAREN ONDORENGO ONDORIO OROKORRAK

Aurtengo urtarrila eta otsaila bitartean EHAZE-tik euskal antzerki eskolen inguruko ikerketa bat burutu dugu. Gai honen inguruan egiten den lehen ikerketa izango da, seguru-eruenik.

Ikerketaren lehen urratsetan “antzerki eskola” gutxi daudela ohartu ginen, bere horretan antzerki eskola besterik ez direnak, eskola formalak, alegia. Hartara, antzerki formakuntzan lan egiten duten kolektibo eta eragile anitzak izan ditugu ikerketa objektu: kultur elkar-teak, antzerki konpainiak, antzerki talde amateurak, sorkuntza espazioak, eta abar. Aurrekoa guztiz esanguratsua da. Izan ere, kulturgintzan behar handia dago, hutsune handia, eta eragile mota ezberdinak behar horri erantzuten saiatzen direla iruditzen zaigu. Errealitate hori interesgarria ez ezik aberasgarria ere iruditu zaigun arren, ezin ukatu atzean dagoen espezializazio falta, kultur gosea. Egon badaude, noski, goi-mailako antzerki eskolak, formakuntza profesionala eskaintzen dutenak, baina dauden horiek ez dira nahikoa eta ez dute baldintza egokietan lan egiten, gainontzeko eragileek bezala.

Antzerki-formakuntzan sumatu dugun prekarietateak zerikusia du, nola ez, kulturgintza duin baterako apustu politiko sendo baten faltarekin, baina baita kultur arloaren beharrekiko ezezagutza kezkarri bat ere: egungo gizartean antzerkiaz jarduten dugunean modu orokor batean jardun ohi dugu, ez dira kontuan hartzen antzerki-korronte eta pedagogia ezberdinak, horretan lanean ari garenontzat guztiz ezinbestekoak direnak. Hori bera imajinaezina da beste alor batzuetan, psikologian adibidez: guztiz barneratuta dugu psikologia diziplina anitz eta konplexua dela eta eskolaren arabera (psikoanalisi, terapia humanista, etab.) planteamenduak oso ezberdinak izango direla. Antzerkia, ordea, ez da hala kontzebitzen: historia, garapen eta aditurik gabeko diziplina bat izango balitz bezala tratatzen da. Aitzitik, antzerkia haur-jardueratzat hartzeko joera dago, haurrentzako aisialdian eskaintzen diren ekintzen artean beste bat izango balitz bezala, ondo pasatzeko eta lotsa kentzeko helburu soilei lotua.

Beharbada euskal gizartean bizi dugun kulturaren desprestijioa eta horri kudeaketa mailan loturiko formazio faltagatik gutxiesten da, besteak beste, antzerkia. Eta kulturak prestigio sozialik ez duen bitartean, prekarietatera kondenatuta dago.

Ekimen pribatuak (antzerki eskola pribatuak) sostengatzea ia ezinezkoa egiten da diru-laguntza publikorik jaso gabe; eta, hortaz, kultur-eragileak diru-laguntza publikoan menpe bizi dira, erabat baldintzatuta: izan ere, laguntza horiek eskatzeko urtero-urtero prozedura burokratiko nekagarriari aurre egin behar diete eta gobernu-aldaketak direla-eta, edozein momentutan laguntzak kendu eta proiektua bertan behera utziko den

beldur dira. Ikerketan parte hartu duten 38 eskoletatik 27-k diru-laguntzak jasotzen dituzte (hau da, %77-ak), eta jasotzen ez dituztenen artean, 2-k (%5,7-ak) eskatu izan dituzte noizbait. Eskola gehienek diru-laguntza urriak direla azpimarratzen dute, eta kasu askotan ez dira gai irakasleei soldata duina eskaini edo emanaldietarako materialak erosteko. Baina duintasuna eskaini nahi eta ahal duenak ere, zailtasunak aurki ditzake, ez baitago inolako lan-hitzarmenik antzerki formakuntzaren eremuan, eta horrek are zaugarriago egiten baikaitu.

Espazioaren erabileraren inguruan ere datu esanguratsuak jaso ditugu. Eskola, antzerki konpainia eta antzerki talde askoren kasuan, norbere herriko udalak eskainitako espazio batean egiten dute lan. Hori batez ere herri txikietan gertatzen da, eta ez eskaintza kultural handiagoa dagoen hirietan. Esan dezakegu herrietan eskusibitate handiagoa dutela kultur-eragileek, eta zentzu horretan abantaila dute. Izan ere, Donostia edo Bilbo bezalako hirietan zailagoa da ekimen txiki batek autonomia eta bultzada izatea, espazio publikoaren erabilerari begira, behintzat. Hala eta guztiz ere, herrietako espazio asko ez dira antzerki-saioetarako egokiak eta beste talde askorekin konpartitu behar izaten dituzte. Herri batzuetako antzokiak hutsik egon ohi dira, urtean hiruzpalau aldiz antzerki-obra komertzial bati leku egiteko bakarrik erabiltzen baitituzte.

Euskal Herriko (batez ere, Hegoaldeko) antzerkigintzaren arloak ez du zerikusirik Europa-mailan dagoen panoramarekin, Frantzia edo Ingalaterraren kasuan, adibidez. Herrialde horietan, “antzerki konpainia erresidente”-aren figura existitzen da, antzerki-konpainia bat herri jakin bati atxikitzen zaionean ematen zaizkion zenbait eskubide eta baldintzari lotuta dagoena; eredu horren inguruan asko eztabaidatu daiteke, erresidentzia mota ezberdinen inguruan, horrelako ereduak dituzten abantaila eta arriskuen inguruan. Gurean, edozein modutan, antzerki-konpainiek oztopo handiak izaten dituzte beren udalekin gai honen inguruko eskaerak egiterakoan, hein handi batean udalek ez dutelako ulertzen. Horregatik, ezinbestekoa da kultur-kudeaketan aritzen diren administrazio langileek formakuntza egoki bat izatea, kultur-eragileen benetako behar eta interesak uler ditzaten.

Alde batetik edo bestetik, ondorio berarekin egiten dugu topo: garapen kulturala lortzeko, prestigio soziala beharrezkoa da. Gizarte baten sorkuntzan eta etengabeko transformazioan kulturak ezinbesteko ekarpena egiten duela ukaezina den arren, hori aitortzea eta benetan barneratzea falta zaigu. Antzerki irakasle bat eskola batera joan eta errespetuz tratatua denean, harritu ez dadin, bederen.



EUSKAL ANTZERKI ESKOLEN ZENTSUA

Ikerketaren lehen ondorioak

**EHAZE-Antzerkizale elkarte
Maddi Goikoetxea**

info@ehaze.eus